

MOZIOA

ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Abotsanitz Udal Taldeak behin baino gehiagotan aditzera eman du Hondarribiko Udalak kontratatuta dituen hainbat zerbitzuren kontratazioa iraungita daudela edo / eta egoera irregularrean lanean ari direla hainbat enpresa.

Egoera honen eguneratzea ezinbestekotzat jotzen dugu hainbat arrazoi direla tarteko; kudeaketa egokia, leihakortasun printzipioa errespetatzea, gainkostuak ekiditea, etab.

Ondoren aditzera eman nahi ditugu gaur egun iraungita ditugun zerbitzuen kontratazioa:

ENPRESA	ZERBITZUA	IRAUNGITZE DATA	DEPARTAMENTUA
HZ GIZEKIMENAK	Prebentzio Komunitarioa	2009/05/19	GAZTERIA / GIZARTE ZERB.
GERTEK	Parkimetroen Mantenimendua eta Dirubilketa zerbitzua / Mugikor bidez ordaindu ahal izateko lizentzia	2007tik ez dago kontraturik	UDALTZAINGOA
GUREAK OSTELERITZA SLU	Adinekoen etxean atezaintza eta garbiketa zerbitzua	2016/08/31	GIZARTE ZERB.

Taula honetan ikus daitekeenez, hainbat zerbitzu urte luzez iraungitako kontratuez baliatuta jarraitzen dute lanean. Guztiz era irregularrean!

Aipatu beharra dago alde batetik zerbitzu hauek Udalak zuzenean kontratatutako langilegoaz baliatuta kudea daitezkeela, eta bestetik ekarpen ekonomiko handia eragiten duten zerbitzuak ere badirela.

Besteak beste, adibide gisa balio ditzaten:

- GERTEK SOCIEDAD DE GESTIONES Y SERVICIOS enpresari azken bost urteetan Hondarribiko Udalak ordaindutako kopuruak adierazi nahi ditugu:

2016	2017	2018	2019	2020
54.553,62 €	65.219,84 €	58.794,50 €	68.249,44 €	51.611,55 €

Adierazgarria da enpresa honek 2006. urtetik daramala Hondarribiko Udalarentzat lanean eta kontratazioaren erabakia hartu zenean Kontuhartzaitzak eta Kontratazio Departamenduek emandako txostenak proposamena indarrean dagoen **legealdiarekin ez datorrela bat** zioela.

- HZ GIZEKIMENAK SA enpresari azken bost urteetan Hondarribiko Udalak ordaindutako kopuruak adierazi nahi ditugu:

2016	2017	2018	2019	2020
297.916,58 €	297.916,58 €	297.916,58 €	299.034,98 €	297.916,58 €

2009 ezkerotik dago kontratua iraungita. Zerbitzua ematen jarraitzen da, baina ez dute gaur egungo beharretara egokitutako lan agindurik, baizik garai hartako egoerara egokitutakoa. Are gehiago, beharren araberako baliabideen gehitze bat beharrean, baliabideak galdu egin dira 2013az geroztik.

Kontuhartzaileak behin eta berriro aipatu du lizitazioa esleitzearen beharra, izan ere egungo egoerak ez baitu SPKLren aurka doala publizitate eta legearen printzipioetan.

Azpimarra jarri nahi dugu Kultur Etxea eta Itsas Etxea eraikinen kudeaketa eredia ez dagoela oraindik zehaztuta. Alkate jauna Kultur zinegotzi zen garaitik, 2011tik 2015erako tartean bere eginbeharretako bat zen Kultur Etxea eta Itsas Etxearen kudeaketa eredia finkatzea.

Hamarkada bat beranduago, eraikin hauen kudeaketa definitu beharrean jarraitzen du Hondarribiko herriak. Bistakoa da garaiko Kultur zinegotziak, zein ondorengo arlo bereko zinegotziek ere ez dutela gaia jorratu. Beraz, EAJren utzikeriaren ondoriozko egoera da ezinbestean.

Beraz, Abotsanitz Udal Taldeak herri Udaltzari ondokoa eskatzen dio:

- Udal kudeaketa eraginkorra egitea. Lanketak jorratzen ez badira egoera irregularrak sortzen direlako eta zerbitzuen itxiera ekar dezakeelako.
- Egoera guzti hauek irregulartasunetik ateratzeko eginbideak lehen bait lehen egin daitezela.
- PREBENTZIO KOMUNITARIOAren zerbitzua 2021 eta etorkizuneko beharretara berdefinitu eta egin beharreko izapideak urte honetan egitea.
- ADINEKOEN ETXEKO ATEZAINZTA ETA GARBIKETA ZERBITZUAren kontratazioa lehen bait lehen burutzea, KASINO ZAHARRAren irekiera ahalbidetzeko.
- PARKIMETROEN MANTENIMENDU eta DIRUBILKETA ZERBITZUA lehiakortasun askearen printzipioak jarraituz kontratazio publiko irekiaren bidez esleitzea.

Hondarribia, 2021ko Urriak 20